

XII. EDIZIOA



“Café Bar Bilbao”

**Teatro Laburreko Saria
Premio Teatro Breve**

Buruaz norbere egin

Idoia Garzes Aldazabal

Buruaz norber_e egin



BURUAZ NORBERE EGIN

Idoia Garzes Aldazabalek (Lasarte-Oria, 1973) Kazetaritza ikasi zuen EHUUn eta, tarteka, erredaktore gisa lan egin izan du Euskal Telebistako hainbat saiotan. Bere jaioterriko Santana Parodia antzerki amateuran aritu izan da, bai gidoilari, bai antzezle.

Gazte literatura: Telefono Dei Galdu bat (Elkar) eta beste batzuk

Nobela: Mendiko Gaitza (Elkar)

Buruaz norbere egin antzezlan bi emakumeren arteko elkarrizketa da, hartzekotan diren erabaki garrantzitsua nola mamitzen den azaltzen duen solasa. Bakoitzak norbera izan nahi horretan, hitz-jokoa egiten da “norbere buruaz beste” egitearen ideiarekin, norberaren bizitzaren lema hartzeari dagokionez.

FITXA

Testua: Idoia Garzes Aldazabal.

Zuzendaritza: Mikel Martinez.

Antzezleak: Leire Orbe, Ruth Guimerà.

Hizkuntza: Euskaraz.

Iraupena: 20 mn

Imanol Alvarez-en kritika:

Leire Orbe eta Ruth Guimera ederto batean betetzen dute zehaztu gabeko industria batean aritzen diren behargin batzuen rola, Mikel Martinezen zuzendaritza trebearenean.

Altuera handian lan egiten dute, eta han goian daudela heltzen zaie atsedendia, bokatarako etena alegia. Eta bokata jaten duten bitartean jada eurekin ez dagoen lankide bati buruz egiten dute berba: ze ausarta izan den, ze lasai egon behar duen orain, eta abar komentatuz.

Idoia Garzes Aldazabalen testua ondo idatzita dago eta, hasieran konturatzen ez bagara ere, anbiguotasunez josia ere bada. Hori dela-eta, amaiera arte ez gara erabat jabetuko izenburuaren nondik norakoaz.

Sariak:

‘Café Bar Bilbao-Tartean Teatroa’

2014ko XII. Antzerki Laburreko **SARIA**

Bilboko Pabiloi 6an [estreinatua](#) eta saritua

2024ko Antzerki Laburreko Ihardunaldietan

Kriseilu Saria Antzezlanik Oena

(Bi emakume lantokian daude, laneko batarekin eta buruko zapiarekin. Halako muntaketa-kate batean daude. Elkarrizketa atseden-uneetan eta lanean ari diren bitartean gertatzen da).

Atsedena: 15 mn, 15 mn

Atsedena ere kontutan izan segurtasun neurriak, mesedez.

Kontu handia, bereziki goiko plataforman zaudetenok

Eta gogoratu: lantokian alkohola erabat debekatuta dago

MERTXE: *(aurrean behera begiratzuz)* Zergatik egingo zuen?

ANAMARI: (atzean jezarrita) ????????

.....*edan*

MERTXE: Koldarra!

ANAMARI: Ez esan horrelakorik!

MERTXE: Errazena egin du, ordea.

ANAMARI: Ez da hori nik uste dudana. Ausardia handia behar du pertsona batek horrelako erabakia hartu eta aurrera eramateko.

MERTXE: Ausardia? Hori ihes egitea da, emakume, arazoari hortzak erakutsi eta aurre egin beharrean galtzipurdia erakustea.

..... *edan*

ANAMARI: Ez dakit... Orain behintzat bakean izango da gajoa.

MERTXE: Bai, Bake santuan: Bejondeiola!

(topa egiten dute boteialrekin.)

ANAMARI: Zuk egingo zenuke?

MERTXE: Nik? ez. Ni ez nago hain pitxatuta.

..... *(bokata atera)*

MERTXE: Eta zuk?

ANAMARI: Ni ere koldarra naiz.

MERTXE: Koldarra? Nirengatik diozu ala... Felirengatik?

ANAMARI: Gu biongatik. Zu eta biongatik.

..... *(bokata)*

MERTXE: Arrazoi duzu, Feliren aldean koldarrak gara gu biok.

..... *(bokata)*

... Zuhurragoak ere bagara, ordea. Izan ere, gure aldean, Feli... pitzadura galanta zuen.

ANAMARI: Hori ere hala da. Eta egia galanta da gu ere, haren gisan, ederki izorratuta gaudela.

MERTXE: Orain, izorratuta, zu eta biok baino ez. Feli, orain, libre da eta.

ANAMARI: Arrazoi duzu. Felirengatik!

(topa egiten dute bokatarekin.) *(bokata)*

(MERTXEek triste mukiak zurgatzen ditu, negar-zotinak ezkutatu nahian).

ANAMARI: Zer duzu?

ANAMARI: Zer pasatzen zaizu?

MERTXE: Orain arte ez dizut esan, baina... haserretu egin ginen.

ANAMARI: Zer?

MERTXE: Feli eta biok haserretu egin ginen.

ANAMARI: Haserretu? Noiz? Nola? Zergatik ez zenidan ezer esan?
(*Isilunea*)

ANAMARI: Zer gertatu zen?

MERTXE: Asper-asper eginda zegoela esan zidan, nazka-nazka eginda, nekatuta.

ANAMARI: Eta?

MERTXE: (*negarrez eta haserre*) (*ezker-aurrera pasatzen da*)

Ni ere hala nengoela eta bazterrak ez nahasteko esan nion. Gu bezalakoek ez dutela ez nekatzeko ez nazkatzeko eskubiderik, (*haserre*) eta are gutxiago aspertzeko baimenik.

ANAMARI: (*Barrez*) Hara! Atera zenuen zure jenio hori...!

MERTXE: Niri ez dit ba grazia handirik egiten!

ANAMARI: Barkatu.... Eta?

MERTXE: Lanean jarraitu genuen.

ANAMARI: Eta listo?

MERTXE: Eta listo.

ANAMARI: Eta horregatik martirizatzen zara?

Lasai zaitetz, Mertxe, zuk ez duzu ezeren errurik. Felik hartutako erabakia berea baino ez da. Ez zara haren ekintzen erantzule.

MERTXE: Ez dakit, Anamari, ez dakit. Amorru handiz begiratu zidan.

ANAMARI: Feli ezagutzen zenuen, Mertxe. Haizeak segituan eramaten zituen haren haserre eta purrustadak.

MERTXE: Ez diot sekula neure buruari barkatuko, nik esandakoengatik egin badu egin duena.

(*Anamari hurbiltzen da*).

ANAMARI: Lasai, emakume!

MERTXE: Bai, baina...

ANAMARI: Baiñik ez, Mertxe.

MERTXE: ...Ezin dut burutik kendu.

ANAMARI: Ahaztu Mertxe, ahaztu. Egindakoa egina dago, Felirenak ez du erremediorik. Erabaki bat hartu eta aurrera eraman zuen, kito!

..... (Bokata)

ANAMARI: Ziur zaude?

MERTXE: ??????

ANAMARI: Ziur zaude zuk.. ez... zenukela egingo?

MERTXE: Jesus! Ezetz esan dizut, ba! Kendu hori burutik! Bildurra ematen didazu.

..... (Bokata)

ANAMARI: Eta biok egingo bagenu? Eh?, biok batera?

MERTXE: Kita, kita... Zu ez zaude burutik sano!

ANAMARI: A ze ezustea lantegian eta herrian. (*barrez*) Lastima, ez genukeela nagusiaren aurpegia ikusiko.

MERTXE: (*Barrez bera ere*) Bai, Gajoa! A ze pena!

ANAMARI: (*Nagusiaren plantak eginez*) Mertxek eta Anamarik zer egin dutela? Jainko potoloa, noraino iritsi litekeen jendearen buru falta! Bi horiek.. Feli hura baino bizkorragoak zirela uste nuen. Argi dago: giza kondizioa misterio handia da.

MERTXE: (*Fartsarekin jarraituz*) Bai, don Klemente, nork daki burutik zer pasatu zaien bi gajo horiei. Familiari halako karga uztea ere...

ANAMARI: (*Don Klemente nagusiaren ahotsarekin*) Ez da ez burutik behera behar bezala janzten diren pertsonen jokaera.

MERTXE: Jesus, Maria eta Jose! Hamaika ikusteko jaiok gara, don Klemente!

ANAMARI: (*Bere ahotsa berreskuratuz*) Bai, oilaloken korua entzuten ari naiz. (*kokoroko kokoroko??*)

..... (Bokata)

MERTXE: Eta... Abelino eta Koxme?

ANAMARI: Ostia, Abelino eta Kosme!

MERTXE: Felik ez zuen familia kargarik baina guk...

ANAMARI: (*gorago*) Guk zer? Mandoak al gara gu?

MERTXE: Guk ezin dugu Felik bezala egin, pentsatzea ere!

ANAMARI: Amestea librea da.

MERTXE: (*gorago*) Baita norbere burua engainatzea ere!!!

.... Barkatu.....

ANAMARI: Ez dago zer barkatua. Beti bezala, arrazoi duzu orain ere.

MERTXE: Arrazoia? Ez dakit... Ez dut Felirekin gertatutakoa errepikatzerik nahi baina... ez dakit... arrazoia ez da paparrean harro daramadan domina.

Ni ere nekatuta nago, ez pentsa. Jota nago, akituta. Badakizu? Inoiz eskatu diot ustezko goiko horri:

Joder, emaizkidazu urte batzuk lasai bizitzeko, urte batzuk neure kaxa

jarduteko. Lanik egin gabe eta sano, neure burua zaintzeko-adina osasunez. Urte bakar batzuk: hori baino ez dizut eskatzen.

ANAMARI: Mertxe....

MERTXE: Ez da asko eskatzea. Ez ote dugu merezi, ala?

..... *Bokata*

MERTXE: Lehen galdetu duzu; ba... bai, ez ezazu (etzazu) dudarik egin: mandoak gara, bai. Begi-albokorik behar ez duten mandoak, gainera. Otzan eta prestu, azenario gutxi eta makilakada franko jasotako mandoak. Dagoeneko kexatzen ez direnak...

ANAMARI: Kexatu? Nola, ordea? Arrantzika ala irrintzaka?

MERTXE: Mandoak... edo Eléfantek. Badakizu zer egiten duten elefanteekin? Jaio eta berehala kate motzean lotu. Gero, handia denean, ohituraren ohituraz, elefanteak uste du beti dagoela lotuta... Eta, akaso, katea ez dago inora lotua, edota preso duen harria txikitu ahal izango luke, baina nonbaitera lotua dagoela uste du elefanteak, ezin duela ihes egin, eta hor jarraituko du, lanaren lanaz hustu eta lehertu arte.

ANAMARI: Jesus! beldurtzen ere ari nauzu. Non irakurtzen dituzu gauza horiek? Orain elefanteak al gara?

Ba, jai daukagu orain ere. Ze, zuk ba al dakizu nola egiten duten elefanteek? Orro? Marru? (*MUUUUUUUU??*)

MERTXE: (*Alegerago*) Zurekin, barre-zantzo!

ANAMARI: Ez da gutxi, ez, zuk barre egiten baduzu! Eta nik zurekin!

MERTXE: Ez da gutxi, ez, norekin barregitea edukitzea.

ANAMARI: Ez da gutxi, ez... Beste batzuk baino hobeto gaude. (*Ixilik elkarri begira baina Mertxek apurtzen du*)

MERTXE: Ba! Besteen egoerek ez dute asko balio norberaren kontsolamendurako.

ANAMARI: Bai, arrazoi duzu. Gu bezalakook... penetan bizi gara beti.

MERTXE: Beti! Penetan, beti penetan bizi naiz mundu honetan... (*behera begira*) Feliren hemengo penak, ordea, bukatu dira.

ANAMARI: (*gora begira*)...

Inbidia diot, inbidia apur bat, bai; libre da bera orain.

MERTXE: Librea bai, baina librea den koldarra.

ANAMARI: Ez, ez da koldarkeria berak egin duena, ez. (*Behera begira*) Nahiago nuke berak egindakoa egiteko adina ausardia bilduko banu neuk ere!

MERTXE: Berriro?!? Berriro kontu horrekin!?!? Jesus! Zu, Anamari, zu ez zara, ez, Feliren hain ezberdina.

ANAMARI: Hori holan bada... Feli eta zure ondoan pasatako denboragatik izango da, Mertxe. Hirurak izan gara beti ezpal berekoak.

....

Hutsik sentitzen naiz, mamirik gabeko ogiaren antzera. *(bota bokata)*

MERTXE: Hutsik akaso... baina ez hutsaren hurrengo, ez ahaztu. Bolada txarren bat izango da.

ANAMARI: Bolada? Luze jotzen ari da ba, bizialdi oso bat.

MERTXE: Bai, Bizitza... gogorra tokatu zaigu. *(Bota bokata)*

ANAMARI: Tokatu? Horixe da, tokatu, bai, guk jokatzea hautatu ez dugun loterian tokatu.

(Isiltasuna.... Botilak atera)

MERTXE: Esan dizut zer den gau eta egun Geroari eskatzen diodana, ezta?

ANAMARI: *(atzera)* Urte batzuk aske, zeure kaxa, bai. Huskeria bat. Baina egon zaitez horretan!...jai daukazu!... poetak dioen bezala: "askatuko zaituen zain bazaude..."

Mertxe: zaude lasai

Anamari: zaude zihur

Mertxe: askatuko zaituela.... zergatik????

Anamari: kateak itsusiak baitira

Mertxe: hilotzaren gorputzean"

Biak: kateak itsusiak baitira hilotzaren gorputzean"

(Monstruak) kateak itsusiak baitira hilotzaren gorputzean"

ANAMARI: Joder!! Bai, egon zaitez horretan: Geroak askatu? Bai zera! lehenago zu eramango zaitu: Lanak, lehertuta.

MERTXE: Lanak pertsona duintzen duela esan ziguten.

ANAMARI: Eta guk sinetsi!

MERTXE: Eta etxean ere berdin: Etxearen karga beti gure bizkarrean. Langileak izan behar dugu, langile arduratsuak, ulerkorrek, pazienteak, zentzudunak, orekatuak, langileak, langileak... izan behar dugu. Emazte onak izateko hezi gaituzte txikitatik.

ANAMARI: Emazte, ama, errain onak izateko.

MERTXE: Arauak errespetatzen erakutsi digute... eta behartu.

ANAMARI: Eta hemen, horri, Euskal matriarkatua esaten diote, izorrai!

MERTXE: Galtzaile ateratzen gara beti.

ANAMARI: Hobe gure kontura, inori lotu gabe, bizi bagina!!!

(MANIFA...ez)

Mertxe: Horixe! Gure kontura. Pardel eskontza baino hobe da neskazahar

<p>(1) <i>(biak bata besteari)</i> <i>(errezitatuz)</i> Hamaika andre gaixok etxian ba dute senarraren pardela salgai eta merke baldin erostunikan izango ba lute Mila esker (batekin) salduko lukete.</p>	<p>(2)BIOK <i>(botilak mikro, kantatuz</i> <i>publikoari)</i> Hamaika andre gaixo ikusten ditut nik beren bizi moduaz ongi asperturik senarraren pardela eraman ezinik neskazaharrek ez dute horrelako lanik.</p>	<p>(3)MERTXE: ZIRT ZART, gogoz egizan par pardel ezkontza baino (4) BIOK hobe da neskazahar.</p>
--	---	--

MERTXE: Bai, baina... Ez dakit ba nik, neskazaharrek gurasoak ere badauzkate, eta anaiak... eta lobak...

ANAMARI: Haiek ere neskameak, orduan.

ANAMARI: Horixe da, bai, gure patua.

MERTXE: Patu horri lepoa moztuko nioke nik, gustura.

ANAMARI: *(Barrez)* Patu horren lepoa sugandilen buztanaren gisan hazten da. Badakizu esaera: lehengo lepotik burua.

MERTXE: Bai, Lehengo lepotikan, lehengo lepotikan, lehengo lepotikan, burua <https://www.youtube.com/watch?v=1frzjUubgUQ&t=22s>

MERTXE: Egun, hilabete eta urte asko dira. Herrestan beti. Bata bestearen atzetik. Nekatuta nago. Besteiei emana bizi naiz. Haiei emana beti.

..... *(behera begira)* Felirenak hunkitu nau.

ANAMARI: *(behera begira)* Kosta ahala kosta atera nahi dut hemendik. Behingoagatik neuri komeni zaidana erabaki! buruaz norbere egin. Felik bezala, joder! Hori da: *(gora begira)* neure buruaz neure egin.

.....

MERTXE: *(Lantegiko atsoen planta eta ahotsa ipiniaz, espantuka eta aitaren eginez)* Don Klemente, zer egingo du orain familiak? Senar gaixoa, eta semea. Eta haien gurasoak? Eskerrak gure Jainko Jaunak haien gurasoak bere ondora aspaldian eraman zituela, bestela... a ze lotsa!

ANAMARI: (*Don Klementeren ahotsa ipiniaz*) Ez da ez burutik behera behar bezala janzten diren pertsonen jokaera.

MERTXE Jesus Maria eta Jose! Burutik kendu ezinik nabil bi gizaseme horien desgrazia!

ANAMARI: Utikan jendearen marmarrak eta jendea bera!

.....

MERTXE: (*Ironiaz*) Denak gure pentsura beti, bai! Mandotik zaldira, edo elefantera, egiten dugu hobera... Beti ere gu baldin bagara pentsua partitzen dutenak!

ANAMARI: Pentsua partitu eta baita azpiak atera ere. Kaleko baserri-kumeak gara gu.

MERTXE: Morroia, beti morroi!

ANAMARI: Gu zainduko gaituenik ez da jaio. Hobe buruan sartzen bazaigu.

..... (*edan*)

MERTXE: (*behera begira*) Eta egingo bagenu?

ANAMARI: Bakea.

MERTXE: Behin eginda... akabo. Ezin izango dugu atzera egin.

ANAMARI: Gaitz erdi.

MERTXE: (*elkarri begira*) Ezin izango dugu bueltarik eman. Ez da damutzeko aukerarik egongo.

ANAMARI: Bake santua.

MERTXE:) Biok batera?

ANAMARI: Idiak bezala.

MERTXE: Zamari kontuetan adituak gara.

ANAMARI: Uztarri berari lotuta denbora asko daramagu.

(*hasten dira zinta gorria kentzen*)

MERTXE: Iritsi da lokarriak hausteko garaia.

ANAMARI: Akuilua baino ez genuen falta.

MERTXE: Geure buruaz geure egingo dugu

ANAMARI: Hori da, geure buruaz geure

MERTXE: Zauden tokian zaudela, bejondeizula, Feli! Zure bila goaz,

ANAMARI: Ez gaitu inork geldituko.

Biok: <https://www.youtube.com/watch?v=QfWH7sj-0mk>

(*Aurrera kaskoak buruan*)

(*Brindis kaskoekin eta bota*)

(*Telefonoa hartu eta Feliri deitzen dio*)

ANAMARI: Oharra edo abisuren bat utziko dugu?

